

ELKARBIZITZARAKO OINARRIZKO ARAU OROKORRAK

Antolakuntza hobetzeko arauak:

- Sarrerak – irteerak:
 - Ikasturte bakoitzean gelen antolaketa aldatu egin daiteke eta Pedagogia Batzordek hartutako erabakien arabera, sarrera eta irteeretarako atea ere alda daitezke. Ikasturte hasierako zirkularrean jakinaraziko zaie familiei.
 - Sarrera nagusia DBHkoentzat izango da.
- Musikarekin batera sartuko dira ikasleak geletara, ez lehenago.
- Eskola eremua itxita egongo da eskola orduetan, hau da 09:00etatik 16:30etara. Irekierak eskolako Guraso Elkartearekin adostuko dira.
- Bai korridore bai eskaileretan lasai eta ordena batekin ibili behar da.
- Eskolak bukatzerakoan aulkiak mahai gainean utziko dira, garbiketako langileen lana errazteko asmoz, arte-hezkuntza ematen den egunetan izan ezik.
- Garbitasuna mantentzea paperontziak erabiliz, txikleak, pipak eta abar saihestuz.
- Eskolaratzeko orduak errespetatu behar dira; beraz, saio batera berandu iristea arrazoitu egin beharko da.
- Ikastetxean, jolas garaiak barne, ezin da telefono mugikorrik erabili.
- Urtebetetze-ospakizunetan gozokirik ez ekartzea gomendatzen da.
- Eskolara etorri ezina, ahal dela, aurrez adieraziko zaio tutoreari. Ez etortzeak justifikatu egin beharko dira, arrazoiak adieraziz eta gurasoek izenpetuz.
- Arazo bat sortzen denean dagokion irakaslearengana joko da eta ondoren tutorearengana.
- Aurkitutako edozein gauza atezaintzan utziko da.
- Gorputz-hezkuntzako saioetara behar den arroparekin joan behar da. 3. mailatik aurrera dutxatzea derrigorrezkoa da saio luzean, eta 1. eta 2. mailakoek kamiseta aldatu behar dute .